

# Hizkuntzaren jabekuntzaz

## *Fontes-en*

JUAN JOSE ZUBIRI LUJANBIO\*

Hizkuntzaren jabekuntzaren inguruko gaia ez da oraingoa, ez eta berria ere. Aspalditik dago gai honen gaineko jakin-mina, esaterako, XVIII. mendeko P.P. Astarloak (1883an argitaratutako lanean) bere liburuan kapitulu batzuk eskaintzen dizkio esku artean darabildun gai honi. Denboran hurbilago ditugun euskalari ospetsuek ere ukitu dute, zeharka bada ere, gai hau. Azkuek (1891, 1989), adibidez, haur hizkeran helduek erabiltzen dituzten hitzak jaso zituen halako hiztegitxo bat eginez. M. Lekuonak (1978) ere antzeko zerrenda osatu zuen eta hizkera-mota honi buruzko iruzkin interesgarriak egin.

Baina euskararen munduan hizkuntzaren jabekuntzari buruzko lanak eta azterketak, era serioan eta zientifikoan eginak, duela gutxi hasi dira. Zehazki esateko lehenbiziko lanak 1991n, duela hamabost urte, agertu ziren Itziar Idiazabalen argitalpen batean<sup>1</sup>. Egia esan, irakasle hau bera lehenxeagotik aritu zen esaldi iragankor eta iragangaitzen ulermenari buruzko lanak egiten J.P. Bronckart-en gidaritzapean, baina argia lehen aldiz ikusi zuten lanak 1991koak dira.

Geroztik, gaur arte iraun duen –eta irauten duen– talde egonkor bat osatu zen gai hau lantzeko eta jorratzeko, eta han-hemenka aritu da haur euskaldun elebarraren eta euskara-gaztelania elebidunen hizkuntz(ar)en jabekuntza-prozesua nola gertatzen den deskribatzen eta azaltzen. Badaude tesiak eginak, liburuak argituruak, gaia monografikoki landu duten aldizkariak, artikulu samalda bat hainbat aldizkaritan, proiektuak, e.a. Informazio gehiago nahi duenak jo beza, esaterako, oraindik eraikitzen ari den web orri honetara: <http://www.ehu.es/eje/>, eta zehaztasun gehiago jasoko du.

Guri dagokigun lantegiari atxikiz, hau da, *Fontes* aldizkarian gai hau azartzen duten artikuluei lotuz, esan dezagun aldizkarian ez dela gaia ukitzen duten

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

<sup>1</sup> Idiazabal, I. (ed.) (1991): *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües. Hizkuntzaren jabekuntza haur elebidun eta elebarretan*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

artikulu ugari ageri, zehazki esateko, bi artikulu oso baizik ez, biak Andoni Barreñarenak, eta beste lan batean, zuzenean hizkuntzaren jabekuntzarekin zeri-kusirik ez duen lan batean, azpipuntu batean ere ukitzen da jabekuntzaren alderdi jakin bat. Erreferentziak segidan ematen ditugun honako hauek dira.

Lan osoak:

– Andoni Barreña: *Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun*, 27, n° 68 (1995), 69-95 orr.

– Andoni Barreña: *Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa*, 29, n° 75 (1997), 173-217 orr.

Gaia ukitzen den lana:

Iñigo/Salaberri/Zubiri: *-ki aditz-atzizkiaren gainean*, n° 69 (1995), 243-295 orr. Bereziki 292-294 orr.

Barreñaren lehenbiziko artikuluan, 1995ekoan alegia, haurrek “hitz egiten” ikasi aurreko hizkuntzaren ezaugarriak nolakoak diren deskribatzen da. Jakina da umeak ez direla bat-batean hizketan hasten, prozesu luzea eta mantsoa jarraitzen dute helduek bezalako hizkuntza erabili arte. Prozesu honen une jakin batean kokatzen da Barreñak egiten duen azterketa, hain zuzen ere haurrak elementu morfologikoak –eta elementu morfologikoak esaten dugunean adierazi nahi dugu deklinabide-atzizkien erabilera, aditz paradigmako pertsona ezberdinen agerrera, e.a.– erabiltzen hasten diren unea ardatz hartuta, aurreko eta ondorengo ekoizpen horien momentuan. Bestela esateko, azterketa oinarritzen da, oro har hartuta, haurra aro aurregramatikaletik aro gramatikalerara igarotzen den une horretan, gutxi gorabehera bigarren urtearen inguruan, hilabete batzuk goiti-beheiti haurren arabera.

Gramatikaurreko aro hori dela eta, esan behar da aldi horretan agertzen diren hizkuntzaren ezaugarriak bereziak direla. Haurra hitzak esateko gai denetik euskararen ezaugarri gramatikalak erabiltzen hasten den arteko garapena, edo hobeki esan, tarte horretako hizkuntza-ezaugarriak berdintsuak dira, euskaraz ez ezik beste hizkuntzetan ere haurrek jarraitzen duten ibilbidea antzetsukoa baita (hizkuntza bakoitzeko hitzen azaleko fomez landa, noski).

Hasiera batean, garapen morfosintaktikoari dagokionez –garapen fonetiko eta semantikoa alde batera uzten ditugu– hitz solteak, bakanak, ematen ditu haurrak. Beranduago, bi hitzeko edo gehiagoko esaldiak –esalditzat jotzen baditugu, bederen– agertzen dira. Baina esaldi hauek ez dute inolako ezaugarri morfosintaktikorik agertzen, hitz pilaketa baizik ez direla esan dezakegu, arau semantiko eta pragmatikoetan oinarritutako segidak baizik ez direla.

Garapen-prozesu hau beste hizkuntzak ikasten dituzten haurretan ere berdintsu gertatzen da. Are gehiago, antzekotasun hau ikusita, gramatika sortzailaren ildotikako zenbait hizkuntzalari saiatu dira aro honetako gramatika unibertsala ere proposatzen; ezagunena “pivot gramatika” deitutakoa izanen da segurua asko. Baina gramatikaurreko ezaugarri hauetara itzuliz, Barreñak, Radford-i (1986) eta Roeper-i (1988) jarraituz, hiru ezaugarri nagusitan laburbiltzen du euskararen jabekuntzan ere aurki daitezkeen tasun horiek:

- ez da gramatika ezaugarriarik agertzen
- ez da arau sintaktikorik azaltzen
- aurkitzen diren ekoizpenak hatsarre semantiko-pragmatikoek bideratzen dituzte.

Bestela esateko, alde batetik, ez da euskararen ezaugarri morfologikorik agertzen, ez izen sintagmaren aztarnarik, ez deklinabidearen arrastorik, ez aditz-pertsonen jokaerarik, ez hitz elkartu edo morfema eratorri emankorrik, ez eta inolako beste elementu morfologikorik ere. Beste aldetik, arau sintaktikorik ere ez da aurkitzen, ez da ez lokailurik, ez juntagailurik, ez beste inolako elementu sintaktikorik kausitzen.

Ikusten den gauza bakarra da haurrak hitz solteak, isolatuak, ematen dituela (izenak, adjektiboak, aditzak...) edo bi hitzeko, edo zenbaitetan gehiagoko, "esaldiak" ekoizten dituela, baina goitixeago aipatu ditugun ezaugarri horiekin (ezaugarri morfosintaktikorik gabe, alegia). Hitz hauek, edo hitz segida hauek, haurrak buruz ikasi duen hiztegia eta hitz horien konbinaketa baizik ez dira, arau semantikoak (lexikoak) eta pragmatikoak jarraituz gauzatzen diren emanaldi soilak.

Aurreko horren segidan, bigarren urtearen inguruan, ezaugarri morfosintaktikoak agertzen hasten dira (artikulu, zenbatzaile eta beste zenbait determinatzailearen erabilera; zenbait hitz deklinaturik; adizki pertsona ezberdinak, e.a.). Jakina, jauzi hau oso garrantzitsua da, eta aurreko aro horretatik jada guztiz desberdina eta beregaina, beste arau batzuk jarriko baitira abian. Gramatikalizazio garaia deitzen zaio honi.

Barreñaren arabera, gramatikalizazioaren ikaskuntza-prozesu hau ez da bat-batean eta kolpean gauzatzen. Gramatika sortzailearen teoria oinarritzat hartuz, berak dio gramatikaren garapen hau era mailakatuan egiten dela, eta mailaketa honek perpausak duen segida hierarkikoari jarraitzen diola, hau da, haurra lehenbizi aditz-kategorien ezaugarriez jabetzen dela (hots, haurrak adizki trinkoak eta laguntzaileak erabiltzen ditu, baina komunztadurarik gabe oraindik), ondoren INFL funtzio-kategoriaz (hemen sartuko lirateke subjektuari, zehar-osagarriari eta osagarri zuzenari dagozkien aditz-komunztadurak, bai eta aditzaren denbora eta modua ere), eta azkenik KONP funtzio-kategorien ezaugarriez (konplementagailuen erabilera, hots, mendeko esaldiak egiteko erabiltzen diren menderagailuen erabilera) (Barreña, 1995).

Teoria honen arabera, zenbait elementu erabiltzeko, beste batzuk –aurreko arokoak– menperatu behar dira, bestela ezinezkoa da perpausaren egituran goragoko (edo sakonagoko) elementu horiek erabiltzea.

Esaterako, aditza oinarritzat hartuz, honako garapen prozesu hau gertatzen dela esaten du Barreñak, errazenetik edo lehenbizien menperatzen den elementutik hasita zailenera edo beranduen agertzen den ezaugarrietara joz:

Aspektu-markak → subjektuarekiko komunztadura → zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura → osagarri zuzenarekiko komunztadura → denbora markak → modu markak.

Barreñak ematen duen azalpen honek oinarri teoriko sendoak ditu, eta esan dezakegu, oro har, euskararen garapen-prozesua horrela gertatzen dela, baina proposatutako segida horri bila dakizkioke bere koxkak ere. Esaterako, zein neurritaraino esan daiteke zehar-osagarriarekiko pertsona-komunztadura menperatzen dela edo osagarri zuzenarekiko komunztaduraz jabetu dela. Edo esan al daiteke zehar-osagarriarekiko zenbait pertsona-komunztadura agertu arren eta aldi berean denborazko markak agertu arren, batzuek bestez baino lehenago jabetzen dela haurra? Gainera haur guztien hizkuntzaren garapenak ez du hurrenkera hori jarraitzen. Zalantzazkoa da, adibidez, osagarri zuzenarekiko komunztadura zerhar-osagarriarekikoa baino beranduago ger-

tatzen dela baieztatzea, bai berak eta bai Ezeizabarrenak (1994) aitortzen dutenez.

Hortaz, artikulua hau jabekuntzaren ildo orokorrak azaltzeko argigarri eta lagungarri bada ere, badago oraindik zer eginga eta zer aztertua xehetasun eta azalpen guztietara iristeko.

Barreñaren bigarren artikulua, *Haur elebiduna eta gramatika-sistemen bereizketa* tituluarekin agertzen den lanak, badu interesik elebitasunaren arloan, bereziki bi hizkuntza aldi berean ikasten dituzten haurren garapen-prozesuaren azterketaren eremuan kokatzen delako. Izan ere, aspaldixkotik plazaratua –eta geroztik izugarri hedatua– baitago bi hizkuntza ikasten dituzten haurrek, hasiera batean, ez dituztela bi sistemak ongi bereizten (ikus Volterra/Taeschner, 1978). Zehazki esateko, teoria honen arabera haur hiru arotatik igarotzen da: hasiera batean haurrak bi hizkuntzetatik jasotako sistema lexiko bakarra du (ez ditu bereizten zein zeinetako hitzak diren); bigarren aroan, sistema lexikoak bereizten ditu baina arau sintaktikoak ez (arau sintaktiko berak hedatzen ditu hizkuntza batera edo bestera); eta azkenik, hirugarren aroan, bi hizkuntza-sistemak ongi bereizten ditu, bai hiztegiari dagokionez eta bai arau sintaktikoei dagokienez.

Beste zenbait autorek, berriz, ez dute teoria hori onartzen, eta beren ustez haurrak hasiera-hasieratik bereizten ditu bi sistemak, hau da, ez dago hizkuntza nahasketarik, ez hiztegiari dagokionez eta ez arau sintaktikoei dagokienez.

Barreñaren artikulua hau, izenburuak berak adierazten duenez, bigarren multzo honetan kokatzen da. Arau morfologiko-sintaktiko guztiz desberdinak dituzten hizkuntzen (euskara eta gaztelaniaren) jabekuntzatik abiatuz, egileak prozesu hori haur elebidunetan nola gertatzen den aztertzen du. Horretarako, izen sintagmaren azterketa hartzen du ardaztako, arlo honetan garbikiro ikus baitaiteke bi hizkuntzetan dauden desberdintasunak, eta haurrak, nahasketarik egiten badu, zein egituratan eta nola egiten duen.

Haurren aro aurregramatikalaz zertzelada batzuk eman ondoren, honako aztergai zehatz hauek azaltzen ditu: 1. determinatzaileak: artikulua, erakusleak, zenbatzaileak. Euskaraz, oro har, eskuinean kokatzen dira (zenbatzaileen kasuan *bi* zenbakitik aurrera ezkerrean), baina gaztelaniaren kasuan, ezkerrean; gainera, gaztelaniak bi artikulua mota ditu: mugatua (cf. *el, la...*) eta mugagabea (cf. *un, una...*). 2. Genitiboen erabilera. Bi hizkuntzetan kokagune desberdina dute: euskaraz, salbuespenak salbuespen, ezkerrean eta gaztelaniaz eskuinean. 3. Pluralaren erabilera. Euskaraz, egiturarik gehienetan, izen sintagmaren bukaeran bakarrik markatzen da pluraltasuna, eta gaztelaniaz, berriz, sintagmako elementu guztietan (cf. *etxe*∅ *handiak* → *las casas grandes*); zenbatzaile zehaztuekin euskaraz ez da pluralgilerik erabiltzen, non eta sintagma mugatua ez den, baina gaztelaniaz bai (cf. *bi* *etxe*∅ → *dos casas*). 4. Generoa. Euskaraz izenek ez dute generorik eta gaztelaniaz bai.

Puntu hauek denak haur elebidun familiarrengan nola garatzen diren aztertuta eta bi hizkuntzetako haur elebakarren garapenarekin alderatu ondoren, ondorio garbira iristen da Barreña: euskara eta gaztelania, bi hizkuntzak batera, ikasten dituzten haur elebidunen garapen-prozesuan –izen sintagmaren alorrean, behinik behin– ez da bi sistemen arau morfosintaktikoen nahasketarik aurkitzen; haurrek burutzen dituzten hutsak garapen mailakatuaren ondorioz sortutakoak dira, eta hizkuntza bakoitzean aurkitzen diren “akats”-

motak elebkarrengan ere aurkitzen dira. Hortaz, haurrak hasiera-hasieratik bereizten ditu bi sistemak, eta Volterra&Taeschner-en teoriak ez du funtsik.

Are gehiago esanen nuke, huts horien ezaugarriak aintzat hartuz –eta izen sintagmakoena ez ezik hizkuntzaren beste arloetako hutsen tasunak ere aztertuz– baieztatu daiteke forma “asmatu” horiek, edo haurrak garapen-prozesu horretan egiten dituen huts horiek, sistema horretako arauetara jarraituz eraikiak direla, eta ez dituela beste sistemako arauetan oinarrituz asmatzen; hau da, euskaraz aurkitzen diren errakuntzak euskal sistemaren arauak jarraituz sortutakoak direla, eta gaztelaniazkoak gaztelaniaren arauetan oinarritutakoak. Esaterako, haurrak “bi pilot” edo “piscina batera” esaten duenean euskararen arauak ezartzen ari da (araua hau da: zenbatzaileekin bukatzeko -a, ustezko artikulua, kendu; baina kasu hauetan haurrak ez du oraindik ikasi amaierako -a hori hitzarena berarena dela; berak artikulutzat aztertzen du eta, hortaz, kendu egiten dio); edo haurrak “atzo nik kotxea ekarri duten” esaten badu, izen sintagmaren arlotik atera eta aditzarenean sartuz, euskararen arauetan oinarritzen da “duten” adizki forma asmatzeko (araua: *nik* pertsonaren adizki forma “dut” gehi iraganeko -(e)n).

Honetaz gainera, halaber, ez da atzendu behar huts horiek berak, edo antzekoak, elebkarrek ere egiten dituztela. Azken hauen kasuan, begi bistan da, eskura dutena sistema bakarra dela, eta sistema horretako arauetara jokatzen dutela, beste inolako euskarririk ez baitute.

Hortaz, garbi gelditzen da kode-nahasketaren hipotesiak ez duela inolako oinaririk. Gainera, Barreñak ematen dituen azalpen eta datuak ikusita –eta izen sintagmakoak ez ezik beste unitateetako hutsak nolakoak diren aztertuta– esan daiteke haurrak bi sistemak hasiera-hasieratik bereizten dituela, eta ez dela bi sistemen arteko inolako arau-gurutzaketarik suertatzen.

Azkeneko artikuluan, Iñigo/Salaberri/Zubiri-renean, jabe-kuntzaren gaia zeharka ukitzen da, esan bezala. Bereizki *-ki* aditz-atzizkia (cf. *izaki*, *joaki*, *eramaki* bezalako aditz motak, alegia) haurraren garapenean noiz agertzen den azaltzen da. Jakina, adizki hauek, aditza bera hanpatzeko, beste adizki batzuen laguntzailearen ezabaketarekin lotura estua dute, nahiz batzuek eta besteek forma desberdinez egiten diren (adizki batzuetan aditz-laguntzailea kentzen da, aditzaren aspektua mantenduz, eta beste adizki batzuei, berriz, partizipioari *-ki* aditz-atzizkia eranstean zaie). Egileek aurkezten dituzten datuen arabera, haurrak hiru urte bete baino lehenago erabiltzen du *-ki* aditz-atzizki hori, nahiz eta oraindik bere erabilera txoil finkatu ez den (bi adibide baizik ez dira agertzen, eta biak nahiko bereziak dira).

Laburtuz, *Fontes* aldizkari honetan hizkuntzaren jabe-kuntzari buruz bi artikulua oso besterik ez dira argitaratu, baina zein baino zein interesgarriago eta argigarriago dira, ukitzen dituzten gaiengatik eta ateratzen diren ondorioengatik.

## BIBLIOGRAFIA

- ASTARLOA, P. P. (1883): *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva ó gramática y análisis razonada de la euskara ó bascuence*, Bilbo, Pedro Belasco inprimategian.
- AZKUE, R.M. (1891): *Euskal-izkindea*, Bilbo, 24-25.
- (1889): *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco*, IV, Euskaltzaindia & Espasa-Calpe, Madril, 353-361.
- BARREÑA, A. (1995): *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- EZEIZABARRENA, M. J. (1994): “La concordancia con el Sujeto en euskera (formas verbales de simple, doble y triple concordancia)”, in MEISEL, J. (argitaratzailea): *La adquisición del vasco y el español en niños bilingües*, Frankfurt/Main Vervuert-Iberoamericana, 181-229.
- LEKUONA, M. (1978): “Lenguaje infantil”, in *Eusko Etnografia*, 2, Kardaberaz bilduma, Tolosa, 569-575.
- RADFORD, A. (1986): “Small children’s small clauses”, *Research in Linguistics*, 1, 1-38.
- ROEPER, T. (1988): “Grammatical principles of first language acquisition: theory and evidence”, *The Cambridge Survey*, 2. alea, Newmeyer argitaratzailea, 35.52.
- VOLTERRA, V./TAESCHNER, T. (1978): “The acquisition of language by bilingual children”, *Journal of Child Language*, 5, 2, 311-326. Gaztelaniaz: “La adquisición y el desarrollo del lenguaje en niños bilingües”, *Infancia y Aprendizaje*, 21, 1983, 23-26.

## LABURPENA

Lantxo honetan *Fontes* aldizkarian hizkuntzaren jabekuntzari buruz jarduten duten artikuluen bilketa eta artikulua horiei buruzko laburpen-iruzkinak egiten dira. Guztira, gaiarekin loturiko bi artikulua oso besterik ez dira, eta beste artikulua batean, zeharka, atalxo bat eskaintzen zaio jabekuntzaren atalari. Bi artikuluek eremu honetan oso garrantzitsuak diren beste hainbat gai jorratzen dituzte. Batak, hasteko, euskararen gramatikazko egiturak erabiltzen ez diren garaiko ezaugarriak nolakoak diren zehazten ditu, eta segidan, egiturak agerzten hasten direnean zein mailaketa jarraitzen duten azaltzen du, eta beste artikulua, elebitasunarekin loturikoa honako hau, bi hizkuntza aldi berean ikasten dituzten haurren sistemak nahasten diren edo ez azaltzen du, aspaldiko hipotesi bat zalantzan paratuz. Azken lan honetan, zehazki esateko, euskararen eta gaztelaniaren izen sintagmaren jabekuntzaren azterketaren bidez frogatzen da ez direla bi sistemen arauak nahasten, hasiera-hasieratik haurrek bi hizkuntzen arauak bereizten dituztela.

## RESUMEN

En este trabajo se realiza una revisión de los artículos que han aparecido en la revista *Fontes* sobre el tema de la adquisición del lenguaje y, tras un breve resumen de cada uno de ellos, se hace una reflexión sobre lo expuesto. Una vez indagado de forma minuciosa se han encontrado dos artículos dedicados exclusivamente al tema, y uno en el que la adquisición de la lengua se toca de forma tangencial. Los dos artículos monográficos versan sobre temas clave del desarrollo del lenguaje. El primero de ellos describe las características de la lengua en la fase pregramatical y los primeros pasos de la fase gramatical del euskera; el segundo artículo, relacionado con el tema del bilingüismo, pone en tela de juicio una de las hipótesis, por cierto bastante extendida, sobre la mezcla de sistemas lingüísticos en una primera fase de la adquisición de dos lenguas. En este último trabajo, tras el análisis de la adquisición del sintagma nominal en euskera y castellano –dos idiomas con características estructurales totalmente divergentes– en niños bilingües familiares, se demuestra que no se produce la supuesta mezcla de sistemas, y que desde el inicio de la fase gramatical el niño diferencia las reglas morfosintácticas de una y otra lengua.

## RÉSUMÉ

On fait ici une révision des articles publiés dans la revue *Fontes* à propos de l'acquisition du langage, et après un bref résumé de chacun d'eux, on fait une réflexion sur ce qui a été exposé. Après des recherches minutieuses, on a trouvé deux articles exclusivement consacrés au sujet, et un où l'acquisition de la langue est superficiellement abordé. Les deux articles monographiques traitent des sujets essentiels du développement du langage. Le premier d'entre eux décrit les caractéristiques de la langue dans la phase pré-grammaticale et les premiers pas de la phase grammaticale de l'euskera; dans le deuxième article relatif au sujet du bilinguisme, l'hypothèse relative au mélange des systèmes linguistiques dans une première phase de l'acquisition des deux langues, fait assez habituel, est sujet à caution. Dans ce dernier travail, après avoir fait l'analyse de l'acquisition du syntagme nominal en euskera et en espagnol –deux langues avec des caractéristiques structurelles absolument différentes– chez des enfants issus de familles bilingues, il est démontré que le mélange supposé du système n'a pas lieu, et que depuis le début de la phase grammaticale l'enfant fait la différence entre les règles de morphosyntaxe des deux langues.

## ABSTRACT

This article revises those articles published in the journal *Fontes* concerning language acquisition and, after a brief summary of each study, some reflection is made as to what we find. Following a painstaking process of research, only two articles exclusively given over to the subject are revealed, and one of these touches on language acquisition in a rather tangential manner. The two monographic articles deal with key themes in language development. The first describes the characteristics of the language in the pregrammatical phase and the teething years of Basque's grammatical phase; the second article, which deals with bilingualism, questions a widely-accepted hypothesis on the mix of linguistic systems in a primary stage of acquisition of the two languages. The second article, following a study of the acquisition of noun phrases in Basque and Castilian –languages with totally divergent structural characteristics– in children from bilingual families, shows that the presumed system mix does not occur and that children differentiate the morphosyntactic rules of the two languages from the outset of the grammatical phase.